

## **INDAR-IDEIEN ZERTZELADA: GURE HIZKUNTZAN OINARRITUZ**

Alots Gezuraga eta Aitzol Altuna, Nabarra (2008.11.27)

Gure analisi politikoa bizi dugun egoera politikotik ez abiatzea, hau da, inbaditurik bizi garela eta euskaldunoi gure eskubideak biolentzia armaturen bidez kentzen dizkikigutela ez onartzeak, okerreko edo inora ez dihoan bidean aritzea da.

Euskaldunon erreinu independentea ez da historia soila, gaur bizi dugun errealitatea baizik.

Era berean, herri honen askatasun bidean, "indar-ideia" bateratzailea izan daiteke, beste edozein arma konbentzionalak lor ez dezakeen potentziakoa gainera.

Ez daukagu zergaitik Estatu baten izena eta izana asmatu behar, daukagun estatu hau inbaditzaileengandik askatu beharra baizik, gure arbasoben 1000 urteko askatasunerako borrokari ezin diogu entzungor egin ezta mesprexatu ere. Indarrez irabazitako maila da gurea, mundu zabalean nafar bezala ezagutuak, arma politiko hau gure aurrekoei eskertzea besterik ez dugu.

Gizakiak inoiz sortutako arma politiko indartsuenaren jabe izanak bakarrik azaldu dezake gure herriaren bizirautea. Estatu bakar baten existentziak beste Estatu guztien beharra dakar, bestela jai dago, eta hau hemen Arrasaten argi eta garbi izatea beharrezkoa dugu, Arrasatearrak ere momentua heldu zenean herriaren indar guztia helburu bakar horretan bildu eta Estatuaren sorkuntzan eta mantenuan lagundu zutelako.

Hemen gaude euskaldunak, XXI. mendeko Europan, gure izatea erakutziz, ez mendietan galduak ibili garelako, baizik eta Europan Estatuak hedatu zirenean indarrak batu genituelako Estatuaren defendatzeko: Nabarra Estatu, baskoion edo euskaldunon herrikoa. Horrexegaitik hain zuzen errealitate horri bizkarra eman ezin izango dugu ezer eraiki, Estatu horri sor diogu izana.

Tobar eta K. Mitxelenak 1968. urtean esan zuten bezala: "La lengua vasca se conservó probablemente porque los vascos como los cántabros se rebelaron contra los invasores y no llegaron a ser incorporados a los reinos francos y visigodos".

Euskaraz hitz egitea ez da bakaneko pertsonen eskubidea. Zein eskubide eduki dezakegu euskaraz hitz egiteko espainol ejertzitoaren menpean? Erantzuna ulerte erreza da, zapalduz bizi den herria ezin da herritar askez osotua izan, eskubide kolektiboak indibidualen aurretikoak dira, euskal Estatu batek bakarrik bermatu ditzakeenak, euskara euskaldunon artean askatasunez hitzegin alhalbidetzen duena.

Arazorik gabe esan daiteke Nafarroako Erresuma euskaldunona dela. Arturo Kanpionek horrela baieztatzen zuen eta baita Menendez Pidalek espainiarrak ere. Azken horrek

Nafarroako Erresuma homogeneouski euskalduna zela esan zuen. Anacleto Ortueta bizkaitarrak horrela zioen XIX, mendearen hasieran: “Sancho III el Mayor eligió sabiamente las fronteras del Estado Vasco, pues los límites que dio a Navarra fueron los geográficos naturales. Es el genio tutelar de la nacionalidad vasca. Gracias a él vivimos como pueblo”.

Gure Estatuaren lurraldetasuna, inbasioa eta euskaren atzerapena erabat erlazonaturik daudela argi ikusi daiteke. “Nafar Estatua izan da euskararen kabia”, indar politikoa galtzen goazen einean, euskara atzeraka doa eta berarekin euskal kontzientzia.

Gure hizkuntza galtzearen lehen arrazoia eta argiena euskarak Estatu baten babesa galdu zuela da. Estatu baten babesa duten hizkuntza guztiak indartu egiten dira, Estatu batean ofizial ez diren hizkuntzak ez daude inoiz sasoiko. Irlandako gaelikoa salbuezpena da, hauek Estatua lortu zutenerako gaelikoa oso ahul bait zegoen, ea guk lortzen dugun Estatua berreskura orduko euskara hilik ez egotea.

Badago ordea Estaturen indarra agertzen duen kasu paradigmatico bat: ebraiera hizkuntza hila zen, liturgiara mugatua, eta gaur Estatu hizkuntza izanik milioika hiztun ditu. Beste adibide estremoia latina da, Europa, Afrika eta Asian hitz egin zen, gaur egun, Vaticano Estatuan soilik hitzegiten dena, oso esanguratsua!

Gaurko euskaldunok Diglosia hutsean bizi gara. Gaurko Euskal Herrian ezinezkoa da euskaraz bizitzea. Erdarazko telebista kanalak, irratiak, egunkariak ehundaka, kolonoak edo gure herrian integratzeko asmorik ez dutenak millaka, bestei eskatzen diguten errespetua adierazten ez digutenak.

Estatuak eta gure hitz egiteko nahiak bakarrik bermatu dezakete gure hizkuntzaren etorkizuna: elementu biak beharrezkoak direlarik.

Jose María Lacarra historialariak Nabarrako erreinua sortu zeneko garai haietaz idazten zebilela, Gaztela eta Aragoiren presio armatuaz “acentuarán la unión y contribuirán a formar la conciencia nacional” adierazi zuen. Defentsa beharrak, hizkuntza, kultura eta ohitura berekoa izateak (elkarren arteko konfidantzak) gure burua nazio bat lez ikustera ekarri zigan, nazio nafarra, euskaldun herrian oinarritua.

“Historia de Euskal Herria” hiztegi enziklopedikoko lehen atalean, historialari ezberdinek horrela bateratzen dituzte euren irizpideak: “Si bien tradicionalmente la historiografía ha considerado como imposible que en la Edad Media surgieran “conciencias nacionales” ni “sentimientos nacionales” por el escaso desarrollo que presentaban entonces las estructuras políticas, económicas e ideológicas, últimamente tal consideración va perdiendo terreno a favor de una nueva concepción de los fenómenos de identidad colectiva nacionales cuyo nacimiento se tiende a datar cada vez más en fecha más temprana (siglos VIII y IX). En el caso de Vasconia, esta nueva aproximación al problema del nacimiento de las primeras entidades políticas basadas en la existencia de una conciencia grupal encuentra una perfecta adecuación con la aparición en las fechas apuntadas del Ducado de Aquitania (Baskonia) y el Reino de Pamplona.”

GIPUZKOARRAK, BIZKAITARRAK, ARABARRAK, GUZTIAK GARA NAFARRAK,  
SARTALDEKO NAFARRAK, INOIZ BESTE ESTATURIK EZ ONARTU EZ AITORTU  
DUGUNAK.

Gure Estatuaren inbasio militarrek ez gaitu automatikoki beste Estatu bateko herritar  
bihurtzen, hori guk onartu ez izanik, gure Estatua armen bitartez inbaditua dugun NAFAR  
HERRITARRAK GARA.